

Beltza



ULA IRURETAGOIENA

Aurtengo arkitekturako saririk handiena, pritzker saria, Francis Kèrè-k eskuratu du. Aitortzen dut Kèrè dela ezagutzen dudan arkitekto beltz bakarra eta ezin dudala arkitekto indiar edo peruar baten arkitekto izenik aipatu, literaturan gai naizen moduan. Jaso dudan hezkuntza eta ikuskatzen dudan argitaralpen-sarea eurozentrista da, Japoniaren salbuespenarekin. Sariak garai ezberdin baten ataria seinalatzen du.

Kéréren bizitza zinemara eramateko modukoa da. Burkina Fason jaioa, argirik eta edateko urik ez duen komunitate txiki batean, eskola-lagunak hiltzen ikusi zituen. Komunitateak dirua bildu zuen bere ikasketak Berlinen jarrai zitzan arkitekto bilakatzeko. Pobrezia handian bizi diren afrikar komunitateen etorkizuna kanpoan ikasketak egitera bidaltzen dituzten seme-alaben prestakuntzan omen dago, jakintzaren bidez bizitza kalitate hobetuko dutela sinetsita. Kéréren kontakizuna Melillako irudiekin nahastu zaizkit eta ezinegona sartu zait.

Kéré pribilegiadun arkitekto afrikarra da, baina jaioterrira itzuli den semea, komunitateak eskainitako abagunea herriri itzultzeko nahiaz. Komunitatera itzuliko da, arrakastarekin komunitatearentzako eraikin gehiago egiteko aukera emango diolako, arrakastari balio soziala eskainiz. Bere lanaren irudietan eraikitzaile afrikarrak ageri dira, emakumeak eta gizonak, eskuekin lanean. Komunitateko langileen gaitasuna ezagutu eta teknika tradizionalak eta berrituak frogatu dituzte eskola bat egiteko, tenperatu altuekin konforta eskuratzeko ikasgelak eraikiaz. Kéréren lana errepikaezina da, bertakoen jakintza eta eskuen trebakuntzarekin egina delako, eta eskuz egindako akaberen kalitatea European lortu ezina da, kapitalaren gurpilak artisautza lana akabatu duelako. Kèrèk komunitate-erakitzaile papera betetzen du, profesioa bertako norbaiti erakusteko ardura baitu, bera hil ostean arkitekturak komunitatearen bizitza kalitatea hobetzen jarrai dezan. Lezio ederrak, Afrikatik. ●



Eskuin muturrak eskerrak Macroni

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Zortzi diputatu izatetik 89 izatera pasa da bost urtez eskuin muturra Frantziain. Hori horrela, lehen aldikoz talde parlamentario bat osatu dezake Marine Le Penen RN Batasun Nazionalak, horrek abantaila andana ematen diola: lehenik eta behin, sostengu finantzario kontsekuentea. Lehen itzuliko boto bakoitzak urtero 1,64 euro sarraraziko dizkio; hots, bost aldiz 7 milioi euro banatuko dizkio estatuak alderdi xenofoboari –diru publikoa, herritarrona–, RN diputatuei bost urtez banaturiko soldatez gain –beste 16 milioi euro–. Bulego zein bilera gela, azpiegitura askoz gehiago ukanen ditu ere, gertutasuna garatzeko balioko diotenak. Bere proiektua zabaltzeko espazio eta denbora gehiago ukanen du Legebiltzarrean berean –eta hortik oihartzun handiagoa jendartean–. Ideia diskriminatzaileen eta gorrotodunen hedapenari sekulako bultzada da talde parlamentarioa osatu ahal izana.

RNaren bilakaera esponenzialak osagai bat baino gehiago dauzka oinarrian: Le Penen diskurtsoaren eztitzea; zailtasun sozioekonomikoa eta etsipena; *mainstream* komunikabideek osaturiko giro aproposa; Macron presidenteak eskuin muturrari begira daukan jarrera; eta abar. Goazen hurbilgotik begiratzera azken horri. Eskuin muturrari bidea mozteko “fronte errepublikarra” osatzeko urgentzia goraiatu zuen Macronek presidentetzarako bigarren itzuliko Le Penekilako buruz burukoan –baita lortu ere, tartean hautesle ezkertiar anitzei esker–. Ez du hori bultzatu Legebiltzarretarako bozketan. Hein berean kokatu ditu bi muturrak, ezkerre zein eskuina: biak “desordena”, biak “arriku”. NUPES ezkerreko batasunak irabaziz gero, *gorriak* boterera iritsi eta nahasmendua hedatuko zuten instituzioetan. Horra zabalduko mezua. 1981ean, Mitterrand sozialistaren garaipenak “tanke sobietarrak [Parisko] Concorde plazara sartzea” eraginaren omen zuen bezala... RN eta NUPESen artean izan da bigarren itzulia 62 barrutitan, eta Macronek alderdiak bakarrik seitan du NUPESen alde egitera deitu eta eskuin muturrari botorik ez emateko oharra hamabitan plazaratu du –beste 38tan ez du deus egin, eta seitan zuri bozkatzera deitu du–. Finean, barruti horietatik gehienetan eskuin muturra atera da garaile. Parlamentuan alderdi ttipi izatetik oposizioako talde nagusi izatera pasa da Le Penen alderdia, eta hori tarte biziki laburrean: bost urte iraun duen Macronek agintaldi bakarrean. ●